



Izaro Andres abeslaria, Astigarragako Alorrena sagardotegian, 2020ko txotx sasoiari hasiera ematen. Gorria RUBIO | FOKU

# IZAROK «OHOREZ» IREKI DU TXOTX SASOIA




GARA

2019an hamabi milioi litro inguru sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian, horietatik 8,5 milioi bertako sagarrarekin. Aurtengoak jazoak baino kolore «alaiagoa» izango du.

«Gure sagardo berria» oihu eginda, Izaro Andres abeslaria 2020ko txotx denboraldia ireki zuen atzo Astigarragako Alorrena sagardotegian, XXVII. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aurretik, sagarrondo berri bat landatu du Sagardoetxeko sagastian. Alkoholik edaten ez duen arren, esan zuen beretzat «ohorea» dela denboraldia irekitzea

eta araua hautsi zuen sasoiaren lehen sagardoa probatzeko. Ekitaldia baino lehenago, Sagardoaren Lurraldeko ordezkariak azken uztaren ezaugarrien berri eman zuten. Azaldu zuten, 2019an hamabi milioi litro inguru sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian, horietatik 8,5 milioi bertako sagarrarekin. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako hiru milioi litro

sagardo ekoitzi dira, 48 sagardotegitan: 41 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 2 Araban. Iaztik hona bikoiztu egin da kopurua. Aurten dastatuko dugun sagardoa aurreko urteetan baino kolore «alaiagoa» du, usaimenean «oso garbia» da eta fruta freskoaren usaina du, sagardogileek adierazi zuten. Karboniko maila ona duten sagardo naturalak dira.



**BIHAR.** Askoz kaskarra goa, haizea mendebaldeko jarriz. Garapen bertikaleko hodeiak suspertuta, ekaitzak barreiatuko dira ipar-ekialdeko partean. Zaparradea txingorra izan dezakete tarteka. Haizea arkar eta tenperatura jaisten. Aterrunak baina zaparradea mardulak ere bai. Negu giroa, deseroso eta amorragarria.

## Egun bat ona, bestea kaskarra

**GAUR.** Joxe LANDA. Haizeak hegotik jarraituko du, baina leunago ibiliko da eta, tenperatura pixka bat igoz, giroa goxoago izango da egunean zehar. Beraz, gaur goxo eta atsegina; haizea modu onean, zeru sabaia garbi samar eta hezetasun gutxi. Gauerako, ordea, aldaketa nabarmena etorriko da mendebaldeko erasoak lurralde hau harrapatuta. Badirudi negu giroa jasan beharko dugula aldi batean.